

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko abendua • 310. alea



Elkartasunez jantzitako tonbola



piztu
ERABAKIA

ILUMINA LA DECISIÓN

Abenduaren 26an, zapatua 19:00etan zubi nagusian

Soraluzeko
Gure Eslai Dago

AZAOLEAGA Baserria

David Peñalba eta David Lindemann-ek Azaoleaga baserriaren inguruko lur-sailetan 500 fruta-arbola sartu nahi dituzte. Crowfounding bidezko diru-bilketa abiatu dute egitasmoa martxan jarri ahal izateko.

Zein da zuen asmoa?

Badira bi urte Azaoleaga baserria konpontzen dihardugula, 35 urtez hutsik eta itxita egon ostean. Dagoeneko bertan bizi gara.

Aurreko jabeak 6,5 hektareako lur-sailetak pinuak moztu ditu eta guk sagarrondoak eta bestelako fruita-zuhaitzak landatuko ditugu bertan, fruita txikiko zuhaixkak eta bestelako landaketak tartekatuta, permakultura-ren irizpideak oinarri.

Zein motatako fruta-arbolak sartu nahi dituzue?

Fruita-mota zaharretan espezialista diren mintegietan erosiko ditugu, txertatutako landareak. Bariedade zaharrak, izurriteen kontra hobeto babesten direlako, nortasuna duen fruita goxo ematen dutelako.



Aurten Azaoleaga baserriko teilatua konpontzeko egindako lanak.

Zergatik lagundu behar genuke egitasmoa?

Jaten duen fruitaren %95a kanpotik, lekutatik ekarri behar duen herri batean, lur emankorra, ura eta eguzkia duen herri honetan, berebizikoa dirudien egitasmoa proposatzen dugu: Fruita ekoiztea!

Zela egin daiteke ekarpena?

<http://karena.eu> euskal crowfounding-ak bideratzeko webgunearen bitartez 15 euroko bonolaguntzak eman litezke. Abenduaren 24ra arteko epea dago bonoak eskuratzeko. Bono bakoitzaren truke, 15 euroko fruita-otarra emango dugu, zuhaitzek fruita ematen diguten bezain pronto.

MUGI DAITEZEN HARRIAK

Abenduak 23
INFORMAZIOA BANATZEKO
SAREKIDEEN JUNTADIZOA
18:30ean, Kontzejupean

Abenduak 31
ELKARRETARATZEA
19:30ean, Plaza Berrian

Urtarrilak 9
MANIFESTAZIOA BILBON
Autobusa 15:30ean Estaziñotik
Tiketak salgai: Mendata, Batzoki, Gaztelupe, Bolia, Arrano eta Gaztetxean



*Euskal presoak
Euskal
Herrira*

GIZA ESKUBIDEEN,
KONPONBIDEAREN
ETA BAKEAREN ALDE

SORALUZEKO
SARE

Sekretu bat

Gerturatu hakitx ondora, ikararik bare. Xuxurlaka, goxo... najaton. Halaxe aipatzen jittunau eta sekreturik ederrenak.

Begixak itxi eta osteratxo bat egin deigun 1967ra. Frankismo eta frantsez jakobino garaixan erdixan aurkitzen da Euskal Herrixa. Baina zentralismo, inposiziño eta ankerkerixa daneri aurre eginaz kimuak loratzen hasitta dare herriz herri. Soraluze, ilusiño betian amets eder bat eriten dabiz guraso, andereño eta herrittar ugari. Euskararen lurralde zabalian lez, gure herrixan be Ikastolen mugimendua martxan da; euskaratik euskaraz eta balioz betetako hezkuntza herrittarrari ahuspo emoteko prest! Luze juango litzake, ikastolen mugimenduak gure herrixari ekarritako onura danak banan-banan deskribatzia, sekretu ugari baitira oharkabian pasatzen jakuzenak.

1971tik kaliak euskal kantuz betetzen dittu ikastoliak gabon bueltan. Baina, 80. hamarkadako abenduan 24 bateko iluntzibaten, ikastolan kontautako ipuinak gure baitan bizixa hartzen dabe. Neguko solstiziuari emotera dator Olentzero, euskararen aldeko Urakapinak lagun dittalua. Eta hala, ordura arte gutxi batzuen sekretua, herrixana bilakatzen da. Gutunez gutun, ahoz aho eta zela ez, kantuz kantu.

1996xaz geroztik, lekukua hartuz, Pil-Pileaneko kidiak juntadizo berezi hau antolatzen jarraitzen dabe. Eta hala; hire, nere ta danon euskal imajinarixo kolektibua aberasten hasten da; biziberritzen, bizi-pozten. Inungo ikararik bre erabe-



Maite Quintanilla

“Begixak itxi eta osteratxo bat egin deigun 1967ra”

rritzeko, erabizitzeko. Txokora kondentua izatiari desobedittu, plazia eskuratu eta Mari Domingi be gure sekretuan erdigunera dator 2002xan, ikastetxetik herrira zabalduz.

Ametsa puzten, eta elkarlanian gorpuzten gabiz ordudanik. 2007ttik plazako txabolan bizipoza da nagusi eta sormenez egitten dabe distira gure bi lagunek. Herri identidadia, amalurren ezagutza eta errespetua, parekidetasuna, euskal kultura, euskara... ideia zoro guzti honen bueltan dabilen zurrumbilo geraezina da. Ahoz ahokuan landutakua, herrittarren artian sortutako ipuin baten batutakua eta bertsoz bertso alkarren artian transmititzen gabizena.

Negutik negura, edertuz doa gure bi kidieri egitten jakuen ongi-etorrixa. Galzagorrixen laguntzia badago be, hau dana ez litzake posible izango hainbat eragilen inguruan dantzan dabizen herrittarren alkarlan eta ilusiñorik bare. Musikari, dantzari, hezitzaile, ume, gazte, guraso... Danak alkarrekin. Harrotasunez, baina inungo harrokerixarik bare.

Hauze da sekretua! Ez dauka, inungo argi distiratsuren biharrik. Danontzako egiten doguna da, belaunaldiz belaunaldi alkarrekin gozatzeko. Garana lantzeko. Egin nahi dogulako.

Eta nik, sekretu eder honen konplize daneri, begi kliska bat maittasunez!

Eta hik, badakin, zabaldu inguruan xuxurlaka eta goxo!

Euskalzaletasunaren alde:



Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Gaizka Azkarate **Diseinua:** Iñigo Uribetxebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Gutunak

Unai Larreategi Azurmendi Igandean bozkatzeak merezi ote du?

Mundu berri baten ilusiotik, ametsetik, bizipozetik idatzi nahi nuke.

Gosea, gerra, migrazio behartuak, kontaminazioa, biolentzia matxista, hizkuntza txiki desagertuak, prekarietatea... munduaren etorkizuna gris kolorekoa dela sinestarazi nahi digute Parisen klima aldaketaren inguruan bildu diren politikariek.

Baina nik ez dut grisaren tonalidadeaz eztabaidatu nahi, nik munduari kolore biziak eman nahiko nizkioke, gutxienez guk jaso dugun besteko kolorez utzi nahiko nieke mundua ondoren datozen txikiei.

Ez da lan xamurra, utopikoa esango duzue askok. Baina, askotan, utopiak ez du zertan gauza handia izan. Kolorea eta ondorioz utopia Misio Taldeak prestatutako panpin bakoitzean dago, gaztetxeko hamabostaldi kultureko ekintza bakoitzean, edota aldizkari honetan bertan.

Igandeko hauteskundeetan ba ote dago ordea kolorerik? Utopiarik? Grisa nagusi izanagatik, nik uste baietz, badagoela Espainia zein Euskal Herria kolorez jantzi nahi duenik ere. Nire hautua EH Bilduren berdea izango da (sorpresa ezta?), eta zuk? Politikari gris edo koloredunen alde egingo duzu?

Elgoibartar batek esan zuen moduan, "Irriparre egin, irabaztera goaz eta!!!"

P.D: Iker pil-pilean ez da berdina hileroko zure gutun barik ;)

Zuzenketa

Urriko alean omendutako odol-emaileen zerrendan Juan M. Badiola aipatu genuen, baina Juan Mari Iraola "Txaltxa" izan zen omendua. Etxebarrin bizi arren (Bizkaia), Plazentziara etortzen da odola ematera, odola gertuago emateko aukera duen arren. 50 orratz-zaztada eta 50 odol-poltza eman ditu dagoeneko! Bejondeizula!

AURREZTU ENERGIA



Berotu ebela
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Criado
Fruitategia Urdaitegia



Kalebarren, 12
Tel.: 943 75 12 41



EUSKO LABEL

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Denda
-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi

ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32

Bittartetik



*Jose Luis
Mendizabal*

Zergatik nagoen SAREn

Gure Herri hontan, ez dira falta izan gatazkak eta ondorioz hildakoak, presoak eta erbesterratuak... negarrak eta malkoak... sendatu ezineko zauriak...

Eragindako mina ezin da ukatu. Ardu- edo erantzukizunak banatzerakoan, bakoitzak badugu geure iritzia. Nere uste apalean azpimarratzekoa da alde batek sorrarazi dituen kalteak aitortu izana. Ez dut iritzi bera Estatu(ar)en jarrerari dagokionez.

Sarritan entzun dugu armak alboratutakoan, dena izango zela posible eta gatazka eragin zuten arrazoiak eztabaidatuz bizikidetzarako bideak aurkitzen saiatuko ginela. Tamalez, berbak hai- zeak eramaten ditu eta horrela gaude orain gauden moduan.

Atentzioa ematen didana da Estatu batek ez errespetatzea denondako ezarritako lege eta araudiak. Esango nuke herritarren gehiengoak pentsatzen duela politika horrek gaur egun ez duela zentzurik.

Badira etxetik alde egin eta bueltatu ezin direnak, espetxeratu ondoren eta sakabaneta/dispersioa dela-eta gungandik urruti daudenak, larriki gaixo egon arren burdin-hesien artean daudenak, adinean aurrera joan arren giltzaperatuta jarraitzen dutenak...

Egoera horri buelta emateko beharrezkoa da denon elkarlana, iritzi edo pentsamolde desberdinak izan arren, elkarrekin SARE bat osatzea eskubi- deen, konponbidearen eta bakearen aldeko amarauna hedatuz joan dadin.

“Tonbolan batutako dirua Haitira bideratuko dugu”

Misio Taldea



Misio taldeko kideak.

Gabonetako tonbolaren antolaketa-lanetan buru-belarri sartuta harrapatu ditugu Misio-taldekoak. Hamar-bat emakumezko osatzen dute taldea, “helduak eta kristauak” dira eta misiolariak herrialde pobretuetan martxan jartzen dituzten proiektuak laguntzen dituzte urtero. Urtean bat. Horretarako antolatzen dituzte urtean zehar Gaztañerretako gozoen salmenta eta Gabonetako tonbola moduko ekimenak, dirua biltzeko.

Zer moduz doa tonbolako boletoen salmenta?

Oso ondo. Bi egunetan jarri ditugu salgai eta mordoia saldu dugu. Herriko dendek eta jatetxeek laguntza handia eman digute aurten ere eta sari mordoia zozketatuko dugu. Hori bai, jendeak, batez ere, panpinak tokatzea nahi du. Batzuk, behin eta berriz ahalegintzen dira, tokatu arte. Aurten 125 panpin zozketatuko ditugu. Guk panpinak bilutsik erosten ditugu eta gero jendeak egiten dizkie jantziak.

“Mundua ez dugu konponduko baina geure hondar-alea jarriko dugu”

Zela moldatzen zarete horrenbeste panpina jazteko?

Jende askok parte hartzen du lan horretan, herritarrak asko, baina baita kan-

pokoak ere: Elgoibar, Eibar, Bilbo... Arrasate eta Idiazabalgo monjek ere laguntzen digute. Babes handia sentitzen dugu herri osoaren aldetik. Hemen elkartasun handia dago.

Jasotako dirua zertara bideratuko duzue?

Haitiko proiektu batera bideratuko dugu, osasun eta elikadura-zentro bat garatzen laguntzeko izango da. Urtean proiektu bati laguntzeko batzen dugu dirua eta aurten Haiti aukeratu dugu, beharizan handia dutelako. Haitin une honetan kanpotik bidalitakotik bizi dira.

“Babes handia sentitzen dugu herri guztiaren partetik”

Baten batek galde lezake, zergatik balditzen den laguntza kanpora hemen ere beharra izanda.

Normalean, hori esaten duenak ez du laguntzen, ez kanpoan eta ez hemen. Eta alderantziz, kanpoan laguntzen duenak, normalean, hemen ere laguntzen du. Guk hemengo elikagaien bankuarendako janaria biltzen ere parte hartzen dugu, banku etikoa sustatzen... Baina, batez ere, herrialde txirotuetako proiektuak diruz laguntzen ditugu: emakumezkoen zentro baterako ordenagailuak erosteko

dirua bidali dugu Argentinara, Santo Domingora umezurztegi baterako, Guatemalara kaleko eskola laguntzeko... Beti elizaren bitartez bideratzen dugu laguntza hori, ze zoritxarrez gobernuetara heltzen den laguntza ustelkeriak jaten du.

“Mundu hobea batekin amesten dugu. Hori lelokeria, ezta?”

Eragile askok Elizaren jarduna ere kritikitzen dute.

Bai, Eliza ez dago modan; ondorioz, gu ere ez. Elizak baditu gauza kritikagarri asko baina guk aldarrikatu nahi dugu misiolariak egoerarik okerrenetan egiten dutela lana eta sekulako lana egiten dute. Guk horiei laguntzen diegu. Gehienetan, herriko misiolariak izan dira diruz lagundu ditugun proiektuetan. Beraz, badakigu gure dirua nora heltzen den eta zertan gastatzen den, eurak esaten eta erakusten digutelako zuzenean. Geure begiez ere ikusi ditugu Argentinan eta Santo Domingon izan garenean.

Etorkizunean ere izango da laguntza premia...

Bai. Guk ez dugu mundua konponduko baina hondar aletxo bat jarriko dugu, behintzat, mundu hobea batekin amesten dugu-eta. Hori lelokeria, ezta?

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

Pascual Churrukako langileek elkarretaratzea egin dute



Pascual Churrukako langileek elkarretaratzean.

Abenduaren 3an Pascual Churruca lantegiko hainbat langilek elkarretaratzea egin zuten Plaza Berrian, enpresari zor dizkien ordainketak egin ditzala eskatzeko. Langileek adierazitakoaren arabera, 2009tik ordaintzerakoan atzerapenak izan dituzte eta une hoetan enpresak 2014ko abendu eta 2015eko urriko nominen erdiak zor dizkie langileei. "Lana badago. Enpresak jende gehiago kontratatu du, eskatu digu-

te zapatuetan lanera joateko eta ez dugu ulertzen zergatik ez diguten ordaintzen. Beldur gara eta horregatik erabaki dugu kalera ateratzea".

Altxortegian arazoak

Pascual Churruca lantegiko gerentziak onartu du "ordainketetan arazoak" izan dituztela eta altxortegiaren egoera larria dela: "inbertsio handi bat egin genuen forja beroaren alorreko produkzioa hobetzeko, baina inbertsio hori egin zen garai beretsuan salmenta jeitsiera gertatu zen. Gainera, azken hilebeteotan arazoak izan ditugu kalitatean eta horen guztiaren ondorioz arazoak sotu zaizkigu altxortegian". Hala ere, datorren urteari begira dituzten espektatibak onak ei dira, "azken hilebeteotan eskaeren zorroak gora egin duelako eta fakturazioak ere bai. Uste dugu langileei zor zaien guztia ordaintzeko moduan izango garela, baina horretarako fakturazioa handitzen jarraitu beharko dugu".

FotoNotizia



Berritasunak Olentzero eta Mari Domingiren etxaldean

Aurten ere Pil-pileanek eta Udalak Olentzero eta Mari Domingiren etxola ezarri dute plazan. Hainbat berritasunekin, gainera: abeto pinua ipini da adarraren ordean eta argiteria berriarekin apaindu dute. Gainera, kaleko megafonia-sistema baliatuz musika herri guztian entzuten da egunero. Urtero moduan, Tere Guenetxea sortzaileak tematika zehatza aukeratu du gunea apaintzeko eta aurtengoa irakurzaletasuna euskaraz sustatzea izan da.

Protesta egiteagatik auzipetuta

Hiru soraluzetar auzipetu dituzte joan zen ekainean Auzitegi Nazionalan Ernaiko zazpi kideren kontra egindako epaiketaren lehen saioa ete-teagatik (azkenean denak absolbitu zituzten). Orduko hartan, epaileak salatik kanporatu zituen auzipetuak eta ikusle moduan zeuden herritar guztiak (72). Lau hilabete berandua, horiei denei desordena publikoa eragin izana egotzi diete eta Madrilgo Auzitegi Probintzialak deklarazioa hartzeko agindu du. Herriko hiru gazteek eguaztenean zuten deklaratzeko hitzordua Eibarko epaitegian, baina bertan aurkeztu ziren arren, uko egin zioten deklaratzeari. Orain, epaileak erabaki behar du epaiketaren ingurua den ala ez.



Abenduaren 31n elkarretaratzea deitu du Sarek

Sare herritar mugimenduak deituta, elkarretaratzea egingo da abenduaren 31n, arratsaldeko 19:30ean, Plaza Berrian. "Mugi daitezten harriak" lemapean preso eta iheslarien giza eskubideak aldarrikatuko dira. Horrekin batera, Urtarrilaren 9an Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusak ere antolatu dituzte. Sarek gogorarazi du dispertsio politikak eta erbesteak herritar askoren giza eskubideak urratzen jarraitzen dutela eta giza eskubideen alde egitera dei egin die herritarrei. Datozen egunetan, hainbat sentsibiltateko herritarren iritziak jasotzen dituen bideo berezia zabalduko duela jakinarazi du.

Kontulan 

aholkularitza

Errenta atzerpenak • Zerbitzu juridikoak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea • etab...

Santa Ana 13 - 1. o.º. 20590 Sordeua • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

MENDIZABAL
okindegia

Egurrezko labean egindako ogia

Kalebarren, 10
Tel. 943 75 20 91

Baltegieta, 6
Tel. 943 75 13 99



Kriseilu hegalarien ekimena

Soraluzeko Gure esku dagok suzko kriseilu hegalariek baliatuko dituen ekimena antolatu du abenduaren 26rako. Ekimena Zubi Nagusian egingo da arratsaldeko 19:00etan eta "Argitu erabakia" lemapean ehundaka kriseilu askatuko dituzte zerura, barruan datorren urterako desioak idatzita. Kriseiluak abenduaren 18an eta 23an eskuratu ahal izango dira Kontzejupean edo Iratxo goxodendan. Gure esku dago mugimenduak iragari du datorren urtean hainbat herritan kontsultak antolatuko dituela.



Alkarrekinen batzarrean batu ziren herritarrak.

Foru-diputatua eguneko zentroan

Maite Peña Aldundiko Gizarte Politikako foru-diputatua eguneko zentroaren lanak ikustera etorri zen joan den abenduaren 4an. Egokitzapen-lanak amaituta, ekaina baino lehen zerbitzua martxan izango dela iragarri zuen. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio eguneko zentroaren ustiapena esleitzeko prozesua martxan jartzea.

Bestalde, Udalak jakinarazi du Kiroldegi gainerako instalazioen kudeaketa esleitzeko deialdia gertu dagoela eta datozen egunetan zabalduko dela proposamenak aurkezteko epea.



Alkarrekin: proiektuek gora, parte hartzeak behera

Joan zen zapatuan egin zen Alkarrekinen II. Batzar orokorra. Bertan, lan-taldeek urtebetean egin dutenaren eta, batez ere, datorren urtean egin asmo dutenaren berri eman zuten. Parte hartzeari dagokionez, joan zen urtean baino herritar gutxiagok parte hartu zuten batzarrean, berrogei herritar inguruk.



Datorren urtean garatuko diren proiektuak

Datorren urtean lantzeko 13 proiektu aurkeztu zituzten batzarrean. Honakoak:

Herri identitatea: Sorapedia.eus, herriko entziklopedia digitala.

Mendiak eta ibaiak: Sagar-Errekako ibilbidea, Mendigaineko "Dolmenen ibilbidea" diseinatzea.

Ongizatea: Janari biltegia eratzea eta zahartzaro aktiboa lantzeko ekintza-plana.

Genero ikuspegia: II. Berdintasun-planaren garapena.

Hezkuntza komunitatea: Hezkuntzako plan estrategikoaren diseinua.

Euskara: Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragiteko sarea.

Soraluze jasangarria: Berrerabiltzeko eta birziklatzeko kontzientziazio-kanpaina.

Kirola eta Osasuna: Kirolaren eguna.

Azpiegiturak:

-Hirigintza plan-orokorra eta Olaldeko plan berezia.

-Zibismoaren ordenantza adosteko prozesua.

-Irisgarritasun-plana.

Merkataritza: Herriko merkataritza eta industria-gida.

Udal gobernuaren eta EH Bilduren balorazioa

EH Bilduren ustez "iazko Batzarrean bizi izan zen ilusio-giroa itzalita dago". Oposizioko alderdiaren ustez badira bi arrazoi jatsiera azaltzeko: batetik, "alderdi bozkatuenerari alkatetza kentzeak herritarren atxikimenduan eragin duen urraketa" eta, bestetik, "gobernu berriak prozesuak behar duen besteko ilusio eta energia positiboz lan egiten asmatu ez izana".

Alkateak eskerrak eman zizkien batzarrean parte hartu zuten herritar guztiei. "Egia da parte hartzeari dagokionez jatsiera izan dela, baina, askotan gertatzen den moduan, hasierako oihartzun zabalaren ostean, apaltzea etortzen da". Udalaren aldetik "hausnartu beharreko kontua" dela aitortu du eta etorkizunean "bidean gelditu diren herritarrak" prozesura berriz gerturatzeko ahaleginak egingo dituztela. Alkarrekinetik eta adostutako ekintzak garatzearekiko "apustu garbia" egiten dutela berretsi du.





URTARRILA

Txirrindularitza umezurtz

Hemezortzi urteren ostean, Soraluze Saria txirrindulari-lasterketa bertan behera gelditu zela iragarri zuen txirrindularitza-taldeak, baita taldearen beraren jarduna ere.



OTSAILA

Euskahalduntzea

19. Korrikak euskahalduntzearen mezua ekarri zuen herrira. Hainbat herritarrek eman zizkiguten euren lekukotasunak, besteak beste, AEKko ikasleek.



MAIATZA

Kopako irabazleak

Sorako erregional-taldeak kopa irabazi zuen eta herritarrek sekulako harrera egin zieten jokalariei. Udaletxeko balkoian ospatu zuten garaipena.



EKAINA

Iker Aldazabal alkate

Ekainaren 13ko udalbatzarrak Iker Aldazabal izendatu zuen alkate, EAJ eta PSE-EEk udal-gobernua osatzeko akordioa egin ostean.



IRAILA

Aldarrikapen feminista

Herriko mugimendu feministak Emakumeen Mundu Martxan parte hartzeko deialdia zabaldu zuen. Hainbat gaztek Korner Morea sortu dute gero.



URRIA

Gerra garaiari buruzko liburua

Soraluze 1936 lan-taldeak gerrako gertaeren historia jasotzen duen *Isiltasuna hausten* liburua argitaratu zuen. Bigarren edizioa aterako dute gabonetan.

Jatearen plazera, bertatik bertara

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko karta razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



MARTXOA
Lurdes kalean

Hogei urte eta bost hilabeteko gartzela-zigorra beteta atera zen Lurdes Txurruka kalera. Senide eta lagunek pozez hartu zuten zubian.



UZTAILA
Jaietako krocketaketa

Santa Ana egunean dultzaineroekin batera jardun zuen debartarraren bideoak oihartzun zabala lortu zuen sare sozialetan.



AZAROA
Hirugarren istripua

Urtebetean Maltzagara bidean gertatu den hirugarren istripua gertatu zen azaroan. Urrian auto bat jauzi zen ibaira leku berean.



APIRILA
Laskuraini omenaldia

Herriak omenaldi hunkigarria eskaini zion Aritz Laskuraini. Pelotariekin batera, pelotazaleak ere aldamenean izan zituen ekitaldian.



ABUZTUA
Marihuana haztegia deseginda

Ertzantzak Sagar-errekako eraikin industrialean zegoen marihuana haztegia desegin izanak zeresan handia sortu zuen herrian eta herritik kanpo.



ABENDUA
Lapurreta katea

Abenduaren 8an lapurretan egin zuten berriz Goiaran. Udalak zaintza areagotzeko eskatuz jasotako 1257 sinadura aurkeztu zizkion Ertzaintzari.





OROIOLORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, beilatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalki eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

BERGARAN, Amilaga 27an maribi • 617442155 • maribi@oroilore.com

sutarako egurra salgai

pago-egurra, haritz-egurra...



OSUMA
basolanak
mug. 635 71 34 08



TXURITXU GOZOTEGIA

Tel. 943 75 24 43

Errege eguna goxo goxo pasatzeko, roskei eder batekin osatu ezazu!

Enkarguak hartzen ditugu




EDURTZA taberna

Pintxoak eta razioak

Santa Ana, 18
Tel. 943 75 13 89

 KM design Kiru Muntakak 943 76 99 85	Pol. Amilaga 5 BERGARA kirumuntak@yahoo.es www.kmdesign.es Tel. 943 76 99 85	■ Diseinu eta Fabrikazio lanak	Sukaldeak Horma-armairuak Logelak Zoruak Ateak...
		■ Arrotzeria	lanak oro har ■ Instalazioak




GILA TABERNA

Gozetan 06:30etik
aurretik 943 75 74 36



**Herriko etxea
Casa del pueblo**



Elizpe Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Orrodentzia ilustrazioa
- Inplanteak

DONANIZO BERKALDITZA
FINANTZAKETA ZURE HELBURUA
KONPROBATORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 beheko, Sorabe

365 días en euskera

suplemento especial

El pasado 3 de diciembre, fue el Día Internacional del Euskera. Y para destacar tanto la relevancia de nuestro idioma así como la necesidad de preservarlo, se llevó a cabo un acto de conmemoración en el pueblo, multitudinario al igual que en muchos otros municipios.

Este suplemento especial de la revista mensual Pil-pilean se edita en varias lenguas junto con otras publicaciones locales en euskera asociadas a Tokikom.

Está escrita sobre todo en castellano, pero también en gallego, catalán, urdu, árabe y hasaní. Lenguas todas ellas habladas por los soraluzetarras. Estas son las razones para dicha publicación especial:

- Poner en valor el euskera y el trabajo que realizamos durante los restantes 364 días del año
- Explicar a los soraluzetarras no vasco parlantes del porqué de la publicación en euskera de la revista, que busca de algún modo reducir la enorme diferencia entre publicaciones en euskera y en castellano
- Visibilizar y reconocer, la diversidad lingüística existente en el municipio en la que actualmente se hablan más de 20 lenguas
- Invitar a formar parte del euskera a los no vascoparlantes
- Pil-pilean se reafirma en todo momento en su vocación plural y de servicio público.

Nuestro más sincero agradecimiento a todas aquellas personas que aun no siendo vascoparlantes colaboran de manera constante con la revista Pil-pilean de diversas maneras: facilitándonos fotos, información, opiniones, publicidad... O simplemente valoran y se interesan por su contenido. Gracias a vuestra aportación la revista Pil-pilean es más diversa, más amplia, más enriquecedora.



Euskararen eguneko ekitaldia.

Esperando a la nueva ola

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA | DURANGO

La gran diferencia es que aquí, en el país del euskera, esa ola... la creamos nosotros mismos, con nuestro impulso y energía.

Medio siglo de surf idiomático

El país del euskera es ahora otro, y lo es por aire, por tierra y por mar, tras medio siglo que llevamos de surf idiomático, de coger una y otra ola, como fueron el diseño y propagación de un euskera unitario –el batua–, la enseñanza en euskera desde la guardería hasta la universidad, la creación de medios de comunicación en radio, televisión, prensa y ahora internet, etc.

Ondas de energía concebidas, impulsadas y apoyadas por personas e instituciones, fueran vascoparlantes o no, cuyo objetivo era proporcionar un hábitat sano para un idioma que, durante siglos, había sido arrancado de sus zonas más féculdas quedando casi confinado en el verdadero oasis que fue, para el euskera, el mundo rural.

Trabajo de construcción

Afortunadamente, el apartheid físico y mental de nuestra lengua comenzó a ser derruido hace medio siglo, pero no mediante un trabajo de derribo, sino de cons-

trucción. La devolución de herramientas y entornos favorables para el euskera ha sido una iniciativa colectiva que nuestra sociedad ha protagonizado con determinación, alegría, generosidad, esperanza e ilusión compartida.

Fue aquél un pacto social mayoritario, espontáneo e instintivo, que hoy, ante los retos que nos plantea este mundo actual surgido tras la crisis, amenazador y progresivamente desigualitario, merece ser suscrito de nuevo por quienes creemos en la restitución de un hábitat justo y sano para nuestro idioma.

Creemos en la convivencia de las lenguas y en el reconocimiento recíproco de sus hablantes, cuyos derechos lingüísticos deben ser no sólo reconocidos, sino también protegidos e incluso espolcados. Y percibimos un cierto estancamiento con respecto a la consideración que se debiera tener hacia el idioma que nos constituye desde siempre como hablantes y como pensantes. Es por ello que planteamos un nuevo pacto social, que incluya lo político y lo personal, lo laboral y lo poético, la mente y el cuerpo. La nueva ola del euskera.



Elena Laka
Presidenta de Topagunea

Únete

Vivimos en una sociedad más euskaldun que hace cincuenta años. Han contribuido a ello las instituciones, las leyes y los recursos empleados en favor del euskera. El factor principal que ha propiciado esto ha sido el esfuerzo de los ciudadanos vascoparlantes y activistas en favor del euskera, quienes han unido sus ilusiones y sus fuerzas para poder generar espacios en los que se pueda vivir en euskera.


Hace treinta años los euskaldunes comenzaron a organizarse en asociaciones locales como Pil-pilean, que buscaban aglutinar a personas a las que unía un solo vínculo: el deseo de crear espacios en los que se pudieran relacionar en euskera. Así surgieron los medios de comunicación locales, asociaciones de tiempo libre etc...

Hoy existen más de cien asociaciones locales de euskera, que a su vez se han unido en una sola, Euskaltzaleen Topagunea, movimiento de euskaldunes y euskaltzales, cuya misión es trabajar con y por los ciudadanos para que la lengua vasca sea cada vez más lengua de comunicación entre todas las personas que vivimos en este país. Se trata de un movimiento social abierto a la sociedad. Nadie puede ser excluido del derecho a participar en una lengua que pretende unir. Te invitamos a que participes, a que te ilusiones y formes también parte del movimiento que nos conducirá a una sociedad más euskaldun y más justa e igualitaria para todas las personas y lenguas que forman parte de nuestra sociedad.



**ESTETIKA
SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behea
Tel: 943 75 14 89

NOBEDADEA
Semi permanent manikura
2-3 astean irauten duena
Brillo gehiago, kolore gehiago...
20€



“Es el momento de romper inercias, de ilusionar a la sociedad”

Kike Amonarriz
Euskerófilo hasta la médula

FERMIN ETXEGOIEN | TOLOSA

Licenciado en Filología Vasca, humorista y presentador de televisión el tolosarra Kike Amonarriz (1961) apuesta por sacar el euskera del terreno de la confrontación política y pasarlo al de la crítica constructiva.

¿Es cierto que somos un millón de hablantes?

Según los últimos datos que tenemos en todo Euskal Herria somos unas 922.000 personas las que somos capaces de hablar en euskera. Y a este dato hay que sumarle el número de euskaldunes de la diáspora. En este momento los euskaldunes en el mundo somos alrededor de un millón.

“La mayoría de los euskaldunes son euskaldunberris”

Pues no lo parece...

No lo parece porque llevamos siglos oyendo que somos una lengua pequeña. Porque el español y el francés son dos de las lenguas más habladas del mundo. Porque el uso social del euskera es menor que su conocimiento y porque una gran parte de estos euskaldunes son personas que han aprendido el euskera en la escuela o en los euskaltegis, pero viven en familias y entornos donde el uso del euskera es muy reducido o totalmente ausente. En los últimos años hemos

mejorado el nivel de conocimiento y en los siguientes tenemos que mejorar el nivel de uso.

“Hay que pasar el euskera al terreno de la crítica constructiva”

¿Estamos en un momento clave de ascensión o caída?

Creo que sí porque es en esta década cuando la generación joven de hablantes que ha estudiado mayoritariamente en euskera se está incorporando masivamente al mundo laboral y está formando familias. Si esta generación que, mejor o peor, es capaz de comunicarse en euskera, adopta el euskera como lengua familiar y laboral, el euskera habrá dado un paso de gigante hacia su normalización.

¿Ves necesario algún tipo de pacto social?

Sí. Creo que es posible e imprescindible un acuerdo de mínimos que garantice sacar el euskera del terreno de la confrontación política y pasarlo al de la colaboración y la crítica constructiva, de manera que sea posible aglutinar a las diversas sensibilidades sociales y políticas de este país en torno a un objetivo común. Es una cuestión de justicia social, de respeto a los derechos lingüísticos, de convivencia ciudadana y una gran oportunidad de generar una dinámica

social aglutinadora, cohesionadora e ilusionante.

¿Crees que las instituciones favorecen el uso progresivo del euskera o ralentizan tal proceso?

Hay instituciones implicadas en la normalización lingüística, otras que hace muy poco que han tomado en serio el tema

y otras que todavía ralentizan o obstaculizan este proceso. Es hora de superar estas inercias y de activar positivamente al conjunto de las instituciones de todo Euskal Herria. Creo que es un momento histórico que no podemos desaprovechar. Es una cuestión de responsabilidad política.

No podemos olvidar que la generación con menor nivel de conocimiento es la que se va a ir jubilando en la siguiente década y que las personas que se van a ir integrando en las instituciones van a ser euskaldunes en una inmensa mayoría.

“La mayoría de la sociedad está en una posición favorable al euskera”

¿Cómo haces para nunca perder el buen humor?

Las carencias y problemas que tiene el euskera son obstáculos a superar y retos que conseguir. Y en ello estamos con toda la ilusión y ganas del mundo.




Kike Amonarriz.

Los números del euskera

Gracias a la labor de instituciones y entidades, el euskera crece sin parar

Dato local: ascenso continuo de casi-euskaldunes.

Durante 25 años, el porcentaje de los casi-euskaldunes ha crecido año tras año en Sorraluze. La suma de este porcentaje y el de los euskaldunes da como resultado que hoy día tres cuartas partes de la población de Sorraluze sean capaces -en mayor o menor medida- de manejarse en euskera. Ahora el reto más importante será mejorar yaumentar esa capacidad mediante el uso y la práctica del euskera, en colaboración con las diferentes comunidades lingüísticas presentes en el pueblo.



Fuente: Servicio de Euskera del Ayuntamiento

Alfabetización en la edad adulta

Según la encuesta socio-lingüística de 2011, un tercio de los habitantes del país ha estudiado euskera al margen de su educación reglamentada. En los euskaltegis, el número de alumnos ha descendido en los últimos años, debido, entre otras razones, a que las nuevas generaciones no necesitan de sus servicios en la misma medida.

El perfil actual de quien acude a un euskaltegi es el siguiente: mujer, entre 36 y 45 años, y con estudios universitarios.

Palabra de amistad, desde la diversidad

En Euskal Herria hay más de 6.000 personas que se reúnen todas las semanas para practicar el euskera mediante grupos en los que hay hablantes muy cualificados junto a otros cuya capacitación crece día a día gracias a la ayuda de los primeros, los denominados Berbalagunak (amigos de palabra).

Esta iniciativa surgió en Donostia en 1993 y se ha extendido a todo el territorio vasco, e incluso más allá de nuestras fronteras. Además, en internet existe la plataforma Mintzanet, con idéntico objetivo.

